

PRENTSARAKO OHARRA

18/07/13

Bizkaiko Batzar Nagusiek Supersur errepidearen bigarren fasea gauzatzeko lankidetzaren hitzarmena sinatu dabe

Bizkaiko Batzar Nagusiek, Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Batzordean, Sustapen Ministerioagaz, eta AP-68 autopistaren emakidaduna dan Autopista Vasco-Aragonesa enpreseagaz sinatu dan lankidetzarako hitzarmena onetsi dabe gaur goizean, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen (MHS-VSM) 1b fasea egikaritzeko. Orain bi hilebete Imanol Pradales Foru Diputatuak azaldu eban eta gaur berretsi dauen moduan, lotura hori “estrategikoa” da, “orokorragoa dan eta gune metropolitarrak osoko mobikortasunaren hobekuntzea ekarriko dauen soluzinoaren lehenengo jarduketean dalako”.

Joan dan maiatzaren 15ean Foru Aldundiko Gobernu Kontsejuak hitzarmena onetsi ostean, gaur goizean Batzarretako taldeek horren kontrako eta aldeko jarrerak azaldu ditue. Nuria Atienza Podemos Bizkaiko ordezkariak eta Zigor Isuskiza EH Bildukoak, azpiegitureagaz daukien desadostasunaren parte handia, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen aurkako plataformak Eskarretarako eta Herritarrakazko Hartu-Emonetarako Batzordean atzo azaldu eban txostenean oinarritu dabe. Jarduketa horrek, ingurumenaren ikuspegitik Bolintxun izango leuken eragina aitatzeaz eta azpiegituraren beharrez ganean zalantzak agertzeaz aparte, batzordekide biek beste estruktura batzuei lehentasuna emon behar jakela adierazo dabe, “Errekaldeko Saihesbideari edo Avanzadari, besteak beste”.

Handitze horren beharri jagokonez, Pradalesek, Bizkaiko Foru Aldundiak, egungo MHS-VSMean 2011tik 2016ra, segurtasunari, denporea aurrezteari eta ingurumen arloko eraginari buruz egin dauen eraginaren azterlanaren hainbat datu emon ditu. Holan, azpimarratu dau, alde batetik, tarte bietan, biktimak eragin dituen istripuek %46 egin dabela behera. Horrez gain, adierazo dauenez, “gaur egun Supersur da Bizkaia osoan trafikoan gehien hazten ari dan ordaindu beharreko autopistea”, trafikoak %8,2 egin dauelako gora, ganerako autopistetan %4 egin daben bitartean. Zehaztu dauenez, aurtongo urtariletik bagilera, 2.595.000 ibilgailu ibili dira Supersur errepidetik.

Beste alde batetik, ingurumen arloko eraginari jagokonez, Pradalesek azaldu dau lizitazioak ingurumen eragineko adierazpena jasoten dauela. Modu berean, Errekaldeko Saihesbideari eta MHS-VSMa handitzearen kostuari jagokonez, Aldundiko arduradunak esan dau, Errekaldeko proiektuak m³ko 102 milioi euro balioko dituala. “Eta horregaz ez daukazue arazorik”, adierazo dau.

Horren ostean aldeko posizionamenduak etorri dira. Talde Mistoko Arturo Aldecoak, eztabaidea “zurian edo baltzean” ez zentretzea eskatu dau. Halanda be, talde horretako bozeroalearen eretziz, jarduketa hori “beharrezkoa” da, “logikea” daukalako, “seguruenez, hori eztabaidatu daiteken arren, trafikoa hobetzea ekarriko dauelako”. Jesus Isasi Talde Popularreko ordezkariak, bere aldetik, “iragarpena egin dan moduaren aurrean” desadostasuna erakutsi dauen arren, “hitzarmenagaz ados dagola” adierazo dau, “azpiegituraren parte hori beharrezkoa dala uste dogulako”.

Foru gobernua eusten daben taldeei jagokenez, Irene Edesa jeltzaleak EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeen jokabideagaz ez datorrela bat eta “ez dauela ulertzen” esan dau. Bere taldearen eretxiz, “beharrezko” jarduketea da, “lotura horrek azpiegiturari erabateko funtzionaltasuna emoten deusola uste dogulako eta Gune Metropolitarran emoten diran trafiko pilaketa eta ahalmen falta arazoei konponbidea emoten deusola soluzino integralaren parte dalako”. Josu Montalbán batzordekide sozialistak, bere aldetik, eztabaidea hitzarmenean zentretako eskatu deutse taldeei, bertako klausulen idazketa eta erespidean, hain zuzen be. “Hitzarmena txarra dala dinon arrazoi bakar bat be ez da emon”, adierazo dau.

Bukatzeko, Batzordeak berretsi egin dau hitzarmena, Euzko Abertzaleen, Euskal Sozialisten, Talde Popularraren eta Talde Mistoaren aldeko botoakaz. EH Bilduk eta Podemos Bizkaiak, euren esku-hartzeetan adierazo daben moduan, kontrako botoa emon dabe.

ETXEBARRIA – MARKINA SAIHESBIDEA ETA BI-711 ERREPIDEA

Horrez gain, EH Bildu taldeak ahozko erantzun-eske bi egin deusaz Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Foru Diputatuari. Alde batetik, Joseba Gezuraga batzordekideak Etxebarria eta Markina artean saihesbidea egiteko proiektuaren ganeko interesa erakutsi dau. Pradalesek adierazo dauen moduan, Foru Aldundiaren asmoa, uda bukatu aurretik saihesbidearen bigarren fasearen eraikuntza proiektua lizitatzea da.

Bigarren erantzun-eskea Endika Montes batzordekideak egin dau, eta “Arrontegiko zubiaren azpikaldetik Alzaga auzoraino (Erandio) doan” espaloia egokitzeko lanek sortzen dituen arazoen eta BI-711 errepideko hoditeriak barriztetearen ganekoak izan dira. Batzordekideak udal mailako erakundeakaz koordinetako aukereaz galdetu deutso, konponbidea aurkitzeko, eta holan ez bada obrak bere kontura egiteko eskatu deutso. Imanol Pradalesek azaldu dauenez, BI-711 errepidea “ez da foru errepidea”, horren titulartasuna Portuko Agintaritzari jagoko eta, hori dala eta, bere sailak ez dauka ezelango eskumenik.

“KULTURAN EKIN” IKASTAROA ETA TURISMOAREN ALDEKO JARRERA

Eguneko gai zerrendea Arauz Besteko Proposamen bi onetsiz osatu da. Lehenengoa Podemos Bizkaia taldeak aurkeztutako ekimen batetik sortu da, eta Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen zuzenketa-eskea jaso dau, 'Kulturán Ekin' ikastaróa beste hezkuntza erakunde batzuetara hedatzea eskatzeko Foru Aldundiari, sorkuntzagaz eta arteagaz erlacionautako erakundeakaz lankidetzan, “ekintzailtzaren kultura eta ekintzailtzaren ganeko prestakuntzea Bizkaiko arte eta kultura sektorera zabaldu daiten”. Bere justifikazioan, indartze hori aurrekontuen erespidearen mende egongo dala aitutzen dau zuzenketa-eskeak. Podemos Bizkaiak zuzenketa-eskea onetsi ostean, aho batez onartu da.

Bigarren ekimenean, Talde Mistoak eskaria egin deutso Batzordeari, turismoaren eta Bizkaian egiten diran ekitaldien aldeko jarrera erakusteko eta “horreen kontrako edozein jarreraren edo kanpainaren kontra” agertzeko. Aurreko puntuan gertatu ez dan moduan, EH Bildu eta Podemos Bizkaia ez dira ados agertu ekimenaren alderdi xedatzaileagaz, eta “dana ez dala arrosa kolorekoa” eta “turismoak bere arpegi iluna be badaukala” esan dabe. Halanda be, azkenean onetsi egin da, gobernua eusten daben taldeen, Talde Popularraren eta Talde Mistoaren aldeko botoakaz.

NOTA DE PRENSA

13/07/18

Las Juntas Generales de Bizkaia aprueban el convenio de colaboración para proceder a la ejecución de la segunda fase de la Supersur

Las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado esta mañana en el seno de la Comisión de Desarrollo Económico y Territorial el convenio de colaboración con el Ministerio de Fomento y la Autopista Vasco-Aragonesa, concesionaria de la AP-68, para proceder a la ejecución de la fase 1b de la Variante Sur Metropolitana (VSM). Una conexión que, como ya explicó hace dos meses el Diputado Foral Imanol Pradales y ha reiterado hoy, es “estratégica”, puesto que “es la primera actuación de una solución que es más global y que conlleva a la mejora de la movilidad de toda el área metropolitana”.

Tras la aprobación del convenio por parte del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral el pasado 15 de mayo, esta mañana los grupos junteros han expuesto sus posicionamientos en contra y a favor del mismo. Tanto la representante de Podemos Bizkaia, Nuria Atienza, como el de EH Bildu, Zigor Isuskiza, han basado gran parte de su disconformidad con la infraestructura en el informe expuesto ayer en la Comisión de Peticiones y Relaciones con la ciudadanía por la Plataforma contra la Variante Sur Metropolitana. Además de referirse a la incidencia ambiental que esta actuación podría tener en Bolintxu y plantear dudas sobre la necesidad de la infraestructura, ambos apoderados han manifestado la necesidad de priorizar otras estructuras “como la Variante de Rekalde o La Avanzada”.

En lo que a la necesidad de esta ampliación se refiere, Pradales ha arrojado algunos datos de acuerdo al análisis de impacto realizado por la Diputación Foral de Bizkaia en términos de seguridad, ahorro de tiempo, e impacto medioambiental de la existencia de la actual VSM desde 2011 hasta 2016. A este respecto ha destacado, por un lado, el descenso en un 46% de los accidentes con víctimas en ambos tramos. También ha afirmado que “la Supersur es hoy la autopista de peaje que más está creciendo en tráfico de todo Bizkaia” con un incremento del 8,2% en el tráfico frente al 4% del resto de autopistas. Tal y como ha especificado, entre enero y junio de este año un total de 2.595.000 vehículos han transitado por la Supersur.

Por otra parte, en cuanto al impacto medioambiental, Pradales ha explicado que la licitación cuenta con una declaración de impacto ambiental integrada. De igual manera, en lo tocante a la Variante de Rekalde y al coste de la ampliación de la VSM, el responsable foral ha cuantificado el proyecto de Rekalde en 102 millones por Km². “Y con eso no tienen problema”, ha declarado.

Seguidamente se ha dado paso a los posicionamientos favorables. Arturo Aldecoa, del Grupo Mixto, ha instado a no enfocar el debate “en blanco o negro”. Aun así el portavoz del grupo ve “necesaria” esta actuación ya que tiene “una lógica” puesto que “permitirá seguramente, aunque eso lo podremos discutir, una mejora del tráfico”. Por su parte el representante del Grupo Popular, Jesús Isasi, si bien ha expresado su disconformidad con “cómo se ha hecho este anuncio”, ha asegurado estar de acuerdo “con el convenio porque creemos que hace falta esta parte de la infraestructura”.

Por parte de los grupos que sustentan al gobierno foral, la nacionalista Irene Edesa ha asegurado no compartir “ni entender” la postura de los grupos EH Bildu y Podemos Bizkaia. En opinión de su grupo se trata de una actuación “necesaria” ya que “entendemos que esa conexión le da a la infraestructura su funcionalidad total y porque forma parte de esa solución integral que da solución a los problemas de congestión y falta de capacidad que se dan en el Área metropolitana”. El apoderado socialista, Josu Montalbán, sin embargo, ha instado a los grupos a centrar el debate en el propio convenio, tanto lo que se refiere a la redacción de las cláusulas como al criterio del mismo. “No se ha aportado ni una sola razón que afirme que el convenio es malo”, ha manifestado.

Finalmente la Cámara ha ratificado el convenio con los votos favorables de los grupos Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos, Grupo Popular y Grupo Mixto. EH Bildu y Podemos Bizkaia, tal y como han expresado en sus intervenciones, han votado en contra.

VARIANTE ETXEBARRIA – MARKINA Y LA CARRETERA BI-711

El grupo EH Bildu, asimismo, le ha realizado al Diputado Foral de Desarrollo Económico y Territorial dos preguntas orales. Por un lado, el apoderado Joseba Gezuraga se ha interesado el proyecto de variante entre Etxebarria y Markina. Tal y como ha explicado Pradales, la intención de la Diputación Foral es licitar el proyecto de construcción de la segunda fase de la variante antes de que finalice el verano.

La segunda pregunta, planteada por el apoderado Endika Montes, ha sido en torno a los problemas que generan las obras de adecuación de acera “que va desde debajo del puente de Rontegi hasta el barrio Alzaga (Erandio)” y la renovación de tuberías en la carretera BI -711. El apoderado le ha preguntado sobre la posibilidad de coordinarse con instituciones municipales para encontrar una solución, o de acometer las obras por su cuenta. Imanol Pradales ha explicado que la carretera BI 711 “no es una carretera foral” puesto que su titularidad corresponde a la Autoridad Portuaria y que por lo tanto el departamento no tiene competencias.

CURSO “EMPRENDER EN CULTURA” Y APOYO AL TURISMO

El orden del día se ha completado con la aprobación de dos Proposiciones No de Norma. La primera parte de una iniciativa de Podemos Bizkaia que ha sido enmendada por los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos para instar a la Diputación Foral a reforzar los cursos de "Emprender en cultura", en colaboración con las instituciones relacionadas con la creación y el arte, “de forma que la cultura emprendedora y la formación sobre emprendimiento se extienda en el sector artístico y cultural de Bizkaia”. En su justificación la enmienda apunta que este refuerzo estará supeditado al criterio presupuestario. Una vez la enmienda ha sido aceptada por Podemos Bizkaia, ésta ha sido aprobada por unanimidad.

En la segunda iniciativa, el Grupo Mixto instaba a la Cámara a manifestar su apoyo tanto al turismo como a los eventos que se celebran en Bizkaia, y rechazar “cualquier hecho, actitud o campaña contraria a los mismos”. A diferencia del punto anterior, los grupos EH Bildu y Podemos Bizkaia han mostrado su disconformidad con la literalidad de la parte dispositiva de la iniciativa argumentando que “no todo es de color de rosa” y que “el turismo también tiene su cara amarga”. No obstante ha sido finalmente aprobada con el apoyo de los grupos que sustentan al gobierno, el Grupo Popular y el Grupo Mixto.